



ELKARRIZKETA

Teresa Marcilla

Teresa Marcilla gaztelania irakaslea CREAn:
“Izugarrizko desberdintasunaren aurrean, kontzientzia garbitzeko modu bat da borondatezkotza”.

Asko dira, munduan dagoen bidegabekeria soziala ikusita, euren denboraren zati bat eskaintzen dutenak mundua hobetzeko. Unibertsoaren oinarritzko lege bat dago, zeinarean arabera, jasotzeko eman egin behar da lehenago. Eta, zentzu horretan, ez da arraroa euren ezagutzaren zati bat hurkoekin partekatzen duten gizakiekin topo egitea. Teresa Marcilla Gutiérrez, bilbotarra eta Filosofia eta Psikologian lizentziatua, Baliabide Afrikanisten Zentroan (CREA) boluntario aritzen den emakumeetako bat da. Irakurtzen eta idazten irakasten die gaztelania ikasi ezin izan duten pertsonei.

CREA Afrika: Nola deskubritu zenuen CREA?

Teresa Marcilla: Gizarteratzeko elkartean lan egiten zuen kide bati galdetu nion ea gaztelania irakasle bat interesatzen zitzaion GKerik ezagutzen zuen.

C: Noiztik zara boluntario?

T: Gutxi gora-behera, duela bi urtetik hona.

C: Nola bateratzen duzu zure eguneroko lanarekin?

T: Autonomoa (psikologoa) naizenez, nolabaiteko askatasuna dut nire ordutegiekin.

C: Zein motatako lana gauzatzen duzu CREAn?

T: Gaztelania irakaslea naiz.

C: Zein da zure eskolen helburua?

T: Nire ustez, beharrezkoa da hizkuntza ondo ulertu eta hitz egitea. Egia esan, integratu ahal izateko aurreneko pausua da.

C: Zergatik erabaki zenuen boluntario aritzea?

T: Hain zuzen ere, bidezkoa dela iruditzen zait. Izugarrizko desberdintasunaren aurrean, kontzientzia garbitzeko modu bat da. Guri tartaren puska handia tokatu zaigu. Hori ezin da aukeratu, baina partekatzen saia gaitezke.

C: Nolakoa da zure ikasleekin duzun harremana?

T: Oso ona. Egunero, ateratzen naizenean, euren hitzak entzuteagatik zein zorionekoa naizen pentsatzen dut. Eztabaidak egin ohi ditugu eta zer pentsatu uzten zaitu horrek beti. Kulturaren aldetik oso ezberdinak gara eta uste dut asko dugula ikasteke.

C: Deskribatu, nolakoa da eskola-egun bateko giroa zure ikasleekin?

T: Aldatu ohi da. Maila guztietako jendea dago eta horrek batzuetan apur bat moteltzen du klaseko dinamika, baina, bestalde, bromak egiteko aukera ematen du, giro lasaian. Orain jarraitzen dugun sistematikarekin gai bat proposatu eta horren gainean berba egiten dugu.

Teresa Marcilla

Gaztelania nekez hitz egiten dutenek oso gauza oinarrizkoetan jartzen dute arreta: nola aurkeztu euren burua, pertsonaiak edota eguneroko egoerak antzeztu... (adibidez, denda batera joan; bata dendaria izango da, bestea bezeroa). Helburua kanpoan hobeto defendatu ahal izatea da.

C: Zure eskolei dagokienez, zein dira zure ikasleei ulertzeko zailenak egiten zaizkien alderdiak?

T: Berdin dio txarto egiten badute. Garrantzitsuena berba egitera ausartzea da. Garrantzitsua da lotsa galtzea.

C: Zure ustez, zer esan nahi du CREAko boluntario izateak?

T: Egiten dakidan zerbait eskaintzeko aukera dut, irakasteko alegia.

C: Kontatu irakasle gisa bizitako esperientziak, zein neurritan uste duzu zure lana lagungarria izan dela?

T: Euren herrialdeen eta gurearen arteko ezberdintasun kulturalen gaia proposatu nuen behin. Guztiek nahi zuten aldi berean hitz egin, guztiek ulertzen zuten elkar. Nik uste, une hartan euren bakardade-sentimendua gutxitu zela, edo behintzat nik hala bizi nuen.

C: Zein da boluntario izateagatik jaso duzu saririk handiena?

T: Nahiz eta gutxi izan, zer edo zer egiten dudala senti dezaket.

C: Zer gomendatuko zenieke herritarrei boluntario aritu daitezen?

T: Jar gaitezen euren lekuan. Guztiok dugu irakatsi dezakegun zerbait.